



Lehenik, Pozalagua egoitza adinekoentzat pentsatuta dago. Naturaz, animaliaz eta konpaniaz goatzeko leku aproposa da, non adinekoak bizitza oso on bat izango dute. Gainera, elkarrekin ikasten jarraituko dute, landa-jarduera mota desberdinak egingo dituzte eta osasunez gosatuko dute naturarekin bat egiten. Horretaz gain, txangoak egingo dituzte eta haraneko kultura ezagutuko dute egunero. Egoitza ingurune natural batean kokatuta egongo da, orduan naturaz goatzeko ahalmena izango dute. Egunero altxatuko dira Karrantza Haraneko paisaia ikusten.

Proiektu honen bidez helburu asko lortuko ditugu, haien baruan elikagaien ekoizpena dago. Pozalagua egoitzean produktuak bertan egingo dituzte, hau da, naturalak izango dira eta modu horretan tailerrak egingo dituzte non elkarrekin parte hartuko dute lanak aurrera eramateko. Gainera, animaliak bertan egongo direnez, adibidez ardiak, ardi gazta egiteko aukera izango dute. Eta produktu hoiek herrira esportatuko dira. Hari beretik, haraneko ekonomia-garapena bilatzen eta horreki batera kultura eta tradizio iraupena. Era berean, ingurumen-jasangarritasuna bilatzen da. Eta azkenik karbono-aztarnaren murrizketa gauza oso garrantzitsu bat da, horrela aldaketa klimatikoa gelditzen lagunduko dugu, gaur egun oso arazo larria dela.

Adinekoen aldetik soliaziozazioa da gauza oso garrantzitsu bat, haien artean harremana izatea oso ona da haientzat, dakigunez, han bere familiaren urrun egongo dira eta faltan botako dituzte. Alde honetatik, familia bat izatea da lortu nahi den helburua. Baita, arreta espezializatua izango dute, hau da, eguneko 24 orduak ondo zaindutak egongo dira. Are gehiago, kontuan izanda ingurua segurua izando dela. Hari horretatik, lasaitasuna ere bilatzen da, adinekoek bilatzen duten gauza garrantzitsuenetako bat da. Azkenik, lehen esan dugun bezala, hainbat jarduera desberdin egingo dituzte, estimulatua egoteko eta bizitza maila ona izateko eta beharrezkoa da jarduera fisikoa hori lortzeko. jarduerak eta estimulazioa. Egoitzan 15 bezero egongo dira baina aukera egon ahal daiteke norbait gehiago gehitzeko.